



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2022ko urtarrilaren 4ko bilkura

Bi mila eta hogeita batgarren urtean eta 2022ko urtarrilaren 4an, zortziak eta erditan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeke gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, IDIART Claudine, IÑARRA François, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, GOICOCHEA Iñaki, HEGUY Antton, IRIART Jean Claude.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : JORAJURIA Ramuntxo

Deialdiaren eguna : 2021eko abenduaren 22a

Afitxatze eguna : 2021eko abenduaren 22a

2.ERABAKIA INBERTSIO-GASTUAK GURE GAIN HARTZEA 2022KO LEHEN AITZINKONTU NAGUSIA BOZKATU AITZIN.

Nomenklatura : 7.10

2022ko lehen aitzinkontu nagusia bozkatu aitzin, Herriko etxeak ezin ditu inbertsio-gastuak engaiatu, kitatu eta mandatatu, 2021eko kontu aldian egin beharrekoak diren gastuen hondarren mugetan baizik.

2022ko lehen hiruhileko inbertsio gastuen erreteko, eta ustegabeko eta presazko gastu bati buru egiteko, Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.1612-1 artikulua bertutez, Herriko Kontseiluak bere baimena eman diezaioke Auzapezari inbertsio-gastuak mandatatzeko, 2021eko aitzinkontuan idatziak diren kredituen laurdenaren mugan.

Auzapezaren aurkezpena entzun ondoan, eta luzaz deliberatu ondoren, Herriko kontseiluak:

BAIMENA EMATEN DIO Auzapez Jaunari, erabaki honen erabiltzeko, hots, inbertsio-gastuak mandatatzeko, 2021eko aitzinkontuan idatziak diren kredituen laurdenaren mugan, hots:

440 520,50 € (1 762 082 €ren laurdena).

Kide kopurua : 15
Hor zirenen kopurua : 10
Balizko boz kopurua : 10
ALDE : 10
KONTRA : 0
ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineko egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2022ko urtarrilaren 4an
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2022/01/04an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2022/01/04an.

